



KiVa

Eskola jazarpenaren aurkako programa ikastoletan

1. KIVA PROGRAMA: 2016-17/2017-18 ikasturteetako ebaluazioa eta balorazioa LHn
2. KIVA PROGRAMA: 2018-19 ikasturtean
3. unitate didaktikoaren implementazioa DBHn



1. KiVa PROGRAMA: 2016-17/2017-18 ikasturteetako ebaluazioa eta balorazioa LHN


Kronologia

1. XXIII. Jardunaldi Pedagogikoetan egun bateko lan jarduna burutzen da. **Johanna Alanen** eta **Ulrika Willför-Nyman**-en eskutik programaren ezaugarriak ezagutzeko, testigantzak eta azalpenak entzun, eta lau tailer desberdinetan landu ikastoletako ordezkariak KiVa eskaintzen dituen material eta proposamen desberdinak.
2. 2016an Ikastolen Elkartek, Europar Hezkuntza Kooperatibaren bitartez programaren zesiorako Akordio berezia sinatzen du Finlandiako Unibertsitatearekin.
3. 2016-17 Ikasturtea. EHko KiVa taldea dinamizatzailea osatzen da. Josu Aranbarri, Ion Vazquez, Ane Jalon, Nekane Medrano, Iratxe Pinedo, Irene Lopez-Goñi eta Ageda Laraudogotia. Talde honek Finlandian jasotzen du formazioa.
4. Ikastoletan KiVa taldea eta KiVa arduraduna izendatzen dira. LHko irakasleak programaren filosofian eta baliabide didaktikoetan formatzen hasten dira.
5. 2017ko urtarrilean galdetegi pasatzen da. 1. mailatik 6. maila bitarteko ikasleek pasatzen dute galdetegia. Ondoren, ikasturte berriaren hasierarekin, irailean, hain zuzen ere, galdetegia berriz betetzen dute. Emaitzek jazarleen eta jazarrien kopuruak ematen dituzte.
6. 2018-19 ikasturtearen lehen hilabeteen, Finlandiako Turkuko Unibertsitateko irakasleen bisita izan genuen eta formazioaren lehen saioa izan zuten gure prestatzaileak (Irene López-Goñi, Iratxe Pinedo eta Nekane Galar). Horiek dira ikastoletako DBHko irakasleak formatu dituztenak. 2019ko urtarritetik aurrera irakasle tutoreak martxan jartzen ari dira geletan.


Ikastoletako- Galdetegen emaitza

IKASTOLEN DATUAK. 2016 ETA 2017 PROBINTZIAKA ALDERATUTA


Batabestekoak bi urtetan




Jazarria



Jazarriak



Proporción de esos estudiantes que fueron acosados/que acosaron, escuelas finlandesas KiVa 2009-2015



España

2011

Un estudio estadístico realizado a escolares de 32 países y avalado por la Organización Mundial de la Salud reveló que un 24.8% de los niños españoles entre los 11 y los 18 años sufrían acoso escolar. A pesar de que los índices son aún más elevados en países como EEUU, Francia, Reino Unido o Alemania, el porcentaje de casos en nuestro país es demasiado alto para seguir pensando que se trata de casos aislados. Sólo en 2016 la Fundación ANAR (Ayuda a Niños y Adolescentes en Riesgo) registró 1.207 casos de acoso escolar reales, lo que supone un aumento del 87,7% en el último año y un 240% desde 2015.

Programaren balorazio orokorra

- Ikastolako komunitate guztia inplikatzek ekarri du programaren arrakastarik handiena.
- Prebentzioa lantzea ezinbestekoa izan da, eta horretarako maila guztietako jarduerak aurrera eramatea ezinbestekoa da.
- Ikasmaterialen balorazioa oso positibotzat jo da, aktiboak, besteak beste, eztabaidak, taldeko lana, eskola jazarpenari buruzko film laburrak eta rol jokoak sartzen dira. Ikasleak egoera errealetan jartzen ditu eta geletan salatzea eta biktimaren alde jartzea bultzatzen da. Era berean, eskola jazarpena antzemateko baliabideak ere jartzen ditu: txalekoak, arduradunak esparru guztietan...
- Ikasleen balorazioa oso ona izan da. Prebentzio lanketa honekin besteen lekuan jartzea ahalbideratzen du eta pasiboki jokatzeko zuena, aktibo izatera pasa da portzentaje handi batean jazarriaren defentsan jartzen baita edota KiVa ardura dutenei edota tutoreari egoeraren berri ematen dio.
- Gelako giroa orokorrean hobetu egin da. Gaiarekiko sentsibiltate handia komunitate osoan.
- Gurasoek ere paper garrantzitsua dute eta balorazio ona egin dute. Ikastola askotan gurasoentzako hitzaldiak antolatu dituzte eskola jazarpenak euren seme-alabengan eragin ditzakeen arazoei aurre egiteko. Era berean, gurasoentzat bereziki prestatutako gida ondo baloratu dute. "Gida hori baliogarria da bai semea edo alaba erasotua bada, bai erasotzailea bada, eta bai ikuslea bada ere".
- Formazio saioak oso ondo baloratuak izan dira. Unitateak ezagutzeaz gain, gelako esku-hartzeaz, KiVa taldearen esku-hartzeaz esperientziak konpartitu direlako eta kasu ezberdinen aurrean pautak eskaini direlako.

2. KiVa PROGRAMA: 2018-19 ikasturtean 3. Unitate didaktikoaren inplementazioa DBHn

KiVa programaren ezaugarriak DBHn

- Lehen Hezkuntzan garatutako eremu garrantzitsu berberak mantentzen dira:
- Tutoretza saioetan lantzeko materiala. DBHko etapan ikasleriak protagonismo berezia hartzen du, bere partaidetza ezinbesteko bilakatuz. Horregatik, irakasleek ikasleekin konfiantza giroan lan egin ahal izateko berariazko lan bat bideratzen da. Sinboloek paper garrantzitsua dute; horregatik mezu birtualek, grafikoek, jazarpenaren aurkako ikastetxe bezala bereizten gaituzten txalekoek... bere funtzioa betetzen dute.
- Jazarpen egoerak berariaz lantzen dituen KiVa taldea.
- DBHko ikasleekin harreman zuzena duen Ikastolako komunitate guztiaren inplikazioa: familiak, autobus eta jantokiko zaintzaileak...

DBHko 1., 2. eta 3. mailetan ezarri da

DBHn bideratuko diren langaiak

- Taldeen kohesioa lortzea: kohesioa sortzen.
- Taldearen barruko harremanak: jazarpena eta honen motak, boterea taldean.
- Irakasleentzat formazioa: ni eta besteak, emozioak garrantzitsuak dira, aniztasunean elkar eragin.
- Jazarpen erak eta mekanismoak: ezkutuko jazarpena, IKTen bidezko jazarpena, sexu arrazoen ondoriozko bazterketa...
- Jazarpenaren ondorioak, gure gelaren azterketa.

DBHko KiVak hurrengo elementuak kontutan hartzen ditu:

1. Baliabide anitzak.
2. Tresna digitalak eta ikasketa inguruak.
3. Ikasgela taldearen eta ikastolak osotasunean duten eragina eta lan aukerak.
4. Ikasleria eta irakasleriaren inplikazioa.
5. Prebentzioa lantzen du baina jazarpen egoeretan interbentzioa sustatzen du.
6. Ikastola bakoitzak bere jazarpen egoeren analisisa egitea ahalbidetzen du, urteroko emaitzak sistematikoki jaso ondoren.